



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ABANTO-ZIERBENAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2001.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Abanto-Zierbenako Udalaren Kontu Orokorrari eta ekonomia-finantza jarduerari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du, 2002ko urtealdian. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengo bidez oniritzi da.

Txostenak kontularitzako eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezketasunari buruzko atalean, HKEEk hainbat ezbetetze azaleratu ditu eta horren ondorioz, Udalak 2001eko urtealdian legea betetzeaz eman den iritzia negatiboa izan da.

Ezbetetze hauetan, txostenak azaleratu duen lehena Udal Osokoaren akta eza da; gabezia honek data bakoitzean aztertutako gaiez ziurtasunik ez izatea dakar, udal bazkideen iritziak eta horiek egiaztatu ahal izateko aukerarik ez izatea geroko jokabideetarako. Hirigintzaren esparruan, Antolamendurako Plan Orokorra ez dela argitaratu jakinarazi da.

Aurrekontuari dagokionez, erakunde fiskalizatzaileak kredituen hasierako izendapenean sortu diren irregulartasunak azaleratu ditu, izan ere, aurrekontua luzatzeko erabili den aurrekontua, 2000ko urtealdikoa, oniritzi gabe baitzegoen. Halaber, dirulaguntza bidez kredituen finantzaketa ere aipatu du, 300 mila euroko zenbatekoarekin, urtealdian eraginkortasunik izan ez zutenak.

Legezketasunaren atalean aipatu diren beste alderdi batzuk aldi bateko 9 langileri dagozkie, hauei kontratuak 2001eko urtealdian berriro zitzaizkielarik, inon erasota ez dagoela enplegurako irispidea berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gordeta gauzatu izan denik. Gainera, txostenean bestelako hainbat legehauste barne hartu dira, HKEEk aztertu dituen espedienteetan azaleratu direnak, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari buruzkoak (aurrekontu izendapen eza, publizitate eta lehia eza edota esleipenean aukeraketasuna) eta 289 mila euroko dirulaguntzen emakida deialdi publikorik bideratu gabe.

HKEEk udal kontuei buruz eman duen iritzi orokorra aldekoa izan da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Txostenean barne hartu den finantzaren analisiak ondorioztatu du Udalaren egoera osasuntsua dela, zorpetze txikia eta 2001eko abenduaren 31n diruzaintza gerakin handia gogoan hartuta; honek bide ematen du etorkizunean inbertsio planak egiteko.